

# +55 Elkartegiak programarako jarduera proposamenak aurkezteko 2025eko deialdia

## Oinarriak

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak 55 urtetik gorako pertsonentzako jarduera soziokulturalen programa espezifiko bat garatzen du, +55 Elkartegiak izeneko. Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen Zerbitzuak kudeatzen du programa. Jarduerak Gasteizen, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñun egiten dira, kuadrillekin eta udalekin lankidetzan.

Programaren helburu nagusia da **adinekoek kultura eremuan parte hartuz** haien zahartze aktiboa sustatzea, eta haien bizi kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzeko asmoz.

Publizitatearen, lehia librearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzeko, saileko zerbitzu teknikoek jarduera proposamenak aurkezteko deialdi publiko hau egiten dute.

## Xedea

Deialdi honen xedea da +55 Elkartegiak programarako jarduera poltsa **proposamen gehiagorekin handitzea**. Proposamen horiek 2024ko deialdian aurkeztu zirenei **gehituko zaizkie**, zeinak jada jarduera poltsa horretan sartuta baitaude.

Pertsona partikularrak, profesional autonomoak, enpresak edo elkarteak aurkeztu ahal izango dira deialdira. Informazio gehiago: [aulas+55@araba.eus](mailto:aulas+55@araba.eus)

## Aurkezteko epea eta modua

Proposamenak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 5etik 20ra bitartekoa da.

Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko betebeharrak **Erregistro Elektronikoa Komunaren bidez aurkeztu behar dute eskaera**. Erregistro Egoitza elektronikoa dago: <https://egoitza.araba.eus/eu/>

Administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez dauden pertsonak honako leku hauetan aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak: Erregistro elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun Bulegoen Erregistroan edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako edozeinetan.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du berariaz eta baldintzarik gabe onartzen direla deialdi honetan ezarritako eskakizun guztiak.

## Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Jardueraren proposamena, oinarri hauetako I. eranskinean jasotzen den proposamenak aurkezteko gidoian ezarritakoaren arabera.
- Eskaera orria (II. eranskina) Eskaera inprimaki bat, aurkezten den proposamen bakoitzeko.

Hiru kategoriatarako proposamenak aurkeztu ahal izango dira:

- **A kategoria:** Gasteizen egingo diren ikastaroak

Ikastaroa sei saio edo gehiagotan emango da, eta, gutxienez 9 orduko eta gehienez 27 orduko iraupena izango du, guztira.

- **B kategoria:** Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko edozein udalerritan egingo diren tailer praktikoak, Gasteizkoan izan ezik.

90 minutuko saio bakarrean emango dira. Edo bi, hiru edo lau saiotan emango dira, gutxienez 60 minutukoak eta gehienez 90 minutukoak saio bakoitzeko, eta gehienez ere bi hilabeteko epean egingo dira.

- **C kategoria:** Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko edozein udalerritan egingo diren hitzaldiak, Gasteizkoan izan ezik.

Saio bakarrean emango dira, eta, gutxienez, 60 minutuko iraupena eta, gehienez, 100 minutuko iraupena izango dute.

## Proposamenak ebaluatzea eta jarduera poltsa osatzea

Kultura eta Kirol Saileko teknikariek osatutako batzorde ebaluatzaile batek **baloratuko du** proposamenak +55 Elkartegiak programara egokitzen diren eta aurkeztutako proiektuak zer kalitate tekniko duen (oinarriak, helburuak, metodologia...). Era berean, balioespenean kontuan hartuko dira prestakuntza esperientzia, genero ikuspegia sartu den eta euskararen erabilera.

- Ebaluazio prozesua gainditzen duten proposamenekin jarduera poltsa osatzen da.
- Poltsa hori osatzen duten jarduera guztien artean, programazio premiak zein diren, ikasturte bakoitzeko +55 Elkartegi programa osatuko dutenak hautatzen dira.
- Programa hori osatzeko hautatutako jardueren arduradunei **banan-banan** jakinarazten zaie, bai eta jarduera horiek egiteko aurreikusitako dataren berri eman ere.
- Ebaluazio prozesua gainditzen ez duten jardueren arduradunei ere **banan-banan** ematen zaie informazioa, eta, beraz, haien proposamenak ez dira poltsan sartzen.

- Era berean, ebaluazio prozesua gainditzeko ez duten (eta, beraz, poltsan integratzen ez diren) jardueren arduradunei **banan-banan** informazioa ematen zaie.
- Ebaluazio prozesua gainditu baina ikastaroko programa osatzeko hautatzen ez diren jarduerak poltsan geratzen dira, eta etorkizuneko ikastaroetako programak taxutzeko erabili ahal izango dira.

Deialdira aurkeztu ez diren jardueretara jo ahal izango da, baldin eta lan poltsan ez dauden edukiei badagozkie edo, poltsan egon arren, arduradunak ezin baditu jarduera horiek eman.

Informazio gehiago: [aulas+55@araba.eus](mailto:aulas+55@araba.eus).

## Aurrekontua

Arabako Foru Aldundiak prezio finko hauek ordaindu beharko ditu egiten diren ikastaro, tailer edo hitzaldiengatik: Prezio horietan sartuta daude saioak prestatzea, jardueraren garapena, dosierra egitea, koordinazio, jarraipen eta ebaluazio bilerak, beharrezkoak balira, eta jarduera gauzatzeko egin behar diren beste jarduketa batzuk. Horren barruan sartzen dira dietak eta joan-etorrietako eta garraio gastuak, prestakuntza ematen duen pertsonaren bizilekua eta jatorria edozein izanik ere.

**A kategoria:** 100,00 euro (BEZa barne) prestakuntza ordu bakoitzeko. Programan lehendik emandako ikastaroren bat berriz emanez gero, ordu teorikoen prezioa % 20 murriztuko da.

**B kategoria:** 140,00 euro (BEZa barne) prestakuntza ordu bakoitzeko.

**C kategoria:** 250 euro (BEZa barne) hitzaldi bakoitzeko. Hitzaldi bat ikasturte berean berriz ere emanez gero, prezioa % 20 jaitsiko da.

Dagoeneko esleitutako proposamenetan, eta prestatze lanak alde aurreko lana eskatzen duenez, erakundeak jarduera bertan behera utzi behar badu gutxieneko izen-ematerik ez egoteagatik edo beste inguruabar batzuegatik, eta astebete baino gutxiagoko aurrerapenarekin abisatzen bada, honako zenbateko hauek ordainduko zaizkio esleipendunari:

- Aurrekontuaren % 75, pertsonari jakinarazten ez bazaio eta hura jarduera egiten den tokira joaten bada.
- % 50, baldin eta pertsonari 24 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin jakinarazten bazaio jarduera bertan behera utzi dela.
- % 20, baldin eta pertsonari 24 orduetik astebetera bitarteko aurretiaz jakinarazten bazaio jarduera bertan behera utzi dela.

## Proiektuak kontratatzea eta ordaintzeko modua

Hautatutako erakundeak kontratatu ahal izango dira, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen indarreko legerian xedatutako jarduteko gaitasuna badute. Zerga eta gizarte betebeharrak egunean izan beharko dituzte, eta ez dute kontratatuak izateko inolako debekurik izan beharko. Kontratazioa legez ezarritako prozeduraren bidez egingo da

Ordainketa indarreko legeriaren arabera betetako faktura aurkeztu ondoren egingo da, dagokion oniritzi teknikoarekin. BEZetik salbuetsita egonez gero, salbuespena adierazten duen ziurtagiria, administrazio eskudunak emana, aurkeztu beharko da ikastaroak esleitu aurretik.

## I. eranskina – Proposamenen edukia eta aurkezpena

+55 Elkartegiak programaren bidez, herritarren eskura jarri nahi dira kulturaren hainbat alorretako berezko ezagutzak, modu didaktiko, atsegin eta zorrotzean. Horregatik, adituek jorratu beharko dituzte gaiak, eta kulturaren ikuspegitik azter daitekeen edozein diziplinari buruzkoak izan ahalko dira (artearen, historiaren, zientziaren, musikaren, literaturaren, gizarte zientzien, osasunaren eta ongizatearen arloak, etab.).

55 urtetik gorakoak dira jardueren hartzaileak, edozein dela ere haien prestakuntza kulturala eta intelektuala eta ikasketa maila. Jarduerak zabalkunde izaera izan behar dute, eta horietan parte hartzeko nahikoa da pertsonak ezagutza berriak eskuratzeko interesa izatea.

### Proposamenak aurkezteko gida

1.- Zein kategoriatara aurkezten den (A, B edo C)

2.- Ikastaroa emango duen pertsonaren prestakuntza eta esperientzia. Fase honetan ez da beharrezkoa izango esperientzia hori egiaztatzea. Poltsa osatzeko unean eskatuko da. Zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko da, honako hauek adierazita emandako ikastaroen titulua, edukia eta hartzaileak eta iraupena.

3.- Proiektuaren deskribapena. Ebaluazioa errazteko, informazio hau jaso beharko du:

- Proposatzen den jardueraren izenburua
- Jardueraren deskribapena.
- Proposatutako saioen kopurua. Saio bakoitzaren izenburua, iraupena eta edukiaren aurkibidea.
- Zein hizkuntzatan emango den
- Metodologia. Berariazko aipamena egitea ikastaroak linean emateko prest egoteari buruz.
- Behar teknikoak.
- Euskararen erabilera sustatzea.
- Genero ikuspegia txertatzea.

Hautapen batzordeak proposamenei buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango du, hobeto ebaluatu ahal izateko.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus

## +55 Elkartegietarako jarduera proposamena aurkeztea.

### Eskaera orria

Presentación de propuesta de actividades para el programa Aulas +55  
Formulario de solicitud

## II. ERANSKINA ■ ANEXO II

Kultura eta Kirola Saila

Departamento de Cultura y Deporte

### HARREMANETARAKO DATUAK ■ DATOS DE CONTACTO

**Enpresa edo erakundea**  
Empresa o entidad

**Pertsona fisikoa**  
Persona física

Izen-abizenak / Sozietatearen izena ■ Nombre y apellidos / Denominación social

NANA/IFZ/Pasaportea ■ DNI/NIF/Pasaporte

Telefono mugikorra ■ Teléfono Móvil

Telefono finkoa ■ Teléfono Fijo

Helbide elektronikoa ■ Correo electrónico

### PROIEKTUA ZEIN KATEGORIATARA AURKEZTEN DEN ■ CATEGORÍA A LA QUE SE PRESENTA EL PROYECTO

**A Kategoria**  
Categoría A

**B Kategoria**  
Categoría B

**C Kategoria**  
Categoría C

### ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

**Jardueraren proposamena**  
Propuesta de la actividad

### ADIERAZPENAK ■ DECLARACIONES

Konpromisoa hartzen du aurkeztutako proiektuak proposatu diren baldintzak eta oinarrietan xedatutakoa betez egiteko, baldin eta horien gauzatzea +55 Elkartegiak programazioaren barruan sartzen bada.

Se comprometo a la realización de los proyectos presentados, en las condiciones propuestas y con sujeción a lo dispuesto en la convocatoria, si la ejecución de los mismos se incluye en la programación de Aulas +55.

BEZetik salbuetsia  
Exención de IVA:

SÍ  NO

Salbuetsita badaude, eta proposamena jardueren programazioari gehitzen bazaio, administrazio eskudunak salbuespena aitortzeko egindako ziurtagiria eskatuko da.

Si están exentos, y la propuesta se incorpora a la programación de actividades, se pedirá el certificado de reconocimiento de la exención, expedido por la administración competente.

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

- Zerga betebeharrak egunean daudela adierazten duen informazioa.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.
- Nortasun datuen kontsulta, pertsona autonomoa bada.

De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Consulta de datos de identidad, en caso de persona autónoma.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO. Aurka eginez gero, deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

ME OPONGO a la comprobación de oficio por parte de la Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Álava. En caso de oponerse deberá aportar todos los documentos requeridos en la convocatoria.

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**  
**INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES**

Jakinarazten dizugu zuk emandako datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela, eta tratamendu hauetan sartuko direla:

- “Kultura Etxeko Jarduerak”: liburutegiko zerbitzuen eta kudeaketaren jarraipena eta kontrola egiteko, bai eta kultura jarduerak egiteko eta sustatzeko ere.
- “Hirugarrenak eta interesdunak”: gastuen zein diru sarreraren aurrekontua edo aurrekontuz kanpokoak betearazteko eragiketak izapidetzeko.

Datu horien tratamenduari dagokionez, honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da: batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (DBEO); bestetik, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuetan izan ezik.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, Egoitza Elektronikoa bidez ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora joz (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz, Araba).

Le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar a los tratamientos siguientes:

- “Actividades Casa de Cultura”: con la finalidad de realizar el seguimiento y control de los servicios de la biblioteca y de la gestión bibliotecaria, así como para la realización y promoción de actividades culturales.
- “Terceros e interesados”: para la finalidad de tramitar operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como de ingresos.

El tratamiento de estos datos se realizará de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en [www.araba.eus](http://www.araba.eus), o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).